

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE POLITIKEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 9/2020 Foru Dekretua, martxoaren 24koa. "Etxean Zurekin" programa sortzea onestea

COVID-19k eragindako osasun krisiaren testuinguruan, estatuan alarma egoera deklaratu da, eta autonomia erkidegoan, osasun larrialdiko egoera. Horrek Arabako egoera bat marrazten du, eta premia neurriak hartzea eskatzen du, etengabe aldatzen ari den errealitateak eragiten dituen premia kasuak ahal den neurrian arintzeko.

Gauzak horrela, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak "Etxean Zurekin" izeneko programa sortzea proposatzen du. Programa horren helburua da bere aplikazio eremuan zehazten diren kolektiboek laguntza dibertsifikatua eta pertsonalizatua ematea. Kolektibo horiek kalteberatasun eta babesgabetasun ukituak dituzte ezaugarri.

Prestazio horiekin lotuta dago prezio publikoak ordaintzea, hain zuzen, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuen prezio publikoak arautzen dituen Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 2ko 40/2019 Foru Dekretuan jasoak, otordua etxera eramateko zerbitzua salbu, horren prezioa foru dekretu honetan jasotzen baita.

Foru dekretu honek indarra izateko, alarma, salbuespen edo setio egoerak eta/edo osasun alertako egoerak iraun behar du, eta Euskadiko Babes Zibileko Plana aktibatu behar da.

Horrenbestez, Gizarte Politiken Saileko foru diputatuak eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak batera proposatuta, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak horren berri izan duela eta Arabako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Xedea

Foru dekretu honen xedea da "Etxean Zurekin" programa sortu eta bertan sartzen diren zerbitzuei aplikatu beharreko prezio publikoak arautzea.

Programaren iraupena lotuta dago indarrean dauden edo agindu daitezkeen alarma, salbuespen edo setio egoerei eta/edo osasun larrialdiko egoerei.

2. artikulua. Aplikazio eremua

Betekizun hauek betetzen dituzten pertsonak sartu daitezke "Etxean Zurekin" programan:

- Arabako Lurralde Historikoa erroldatuta egotea.
- Vitoria-Gasteizen: 1) II. eta III. mendetasun graduak aitortuta dituzten pertsonak; 2) I. mendetasun gradua aitortuta duten eta GOFEn etxeko laguntza zerbitzua baliatzen ari diren pertsonak; eta 3) desgaitasuna eta/edo gaixotasun mental larri eta kronikoa duten pertsonak, nahiz eta mendetasun gradurik ez izan aitortuta. Kasu guztietan, zerbitzu hori emateko eskaera egina izan beharko dute, eta zerbitzu teknikoek aldeko balorazioa jaso beharko dute.
- Arabako Lurralde Historikoko gainerako udalerrietan, edozein mendetasun maila aitortuta duten eta hala eskatzen duten pertsonen emango zaie arreta, baldin eta zerbitzu teknikoek aldeko balorazioa ematen badiete.
- Salbuespen gisa, otordua etxera eramateko prestazioa hornidura horretarako eskubidea eman zaien pertsonekin bizi diren ezkontide edo senideengana zabalduko da. Zerbitzu zabaltze hori GOFeko zerbitzu teknikoek onetsi beharko dute.

3. artikulua. Prestazioak

Hauexek dira programan sartzen diren prestazioak:

- Otordua etxera eramatea: bi zerbitzu (bazkaria eta afaria).
- Elikagaiak eta lehen premiako produktuak erostea.

4. artikulua. Eskubidea eskatu eta aitortzeko prozedura

Zerbitzu hori jaso ahal izateko, interesdunak telefonoz eskatu beharko dio erreferentziako gizarte langileari edo haren ordezeko profesionalari. Hark beharrezko datuak bilduko ditu, dago-kion balorazioa egingo du eta, hala badagokio, eskatzailea programan sartuko du.

Programan izena ematen duten eta aurrez Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak artatzen ez dituen pertsonen kasuan bakarrik, erreferentziako profesionalak telefono bidez beteko ditu dagozkion formularioak, interesdunaren edo haren legezko ordezkariaren sinadura izan ezik. Kasu berri horietan, halaber, eskatzailearen baimena eskatuko du bere datu pertsonalak zerbitzua gauzatuko duten erakundeei lagatzeko.

Prestazioa hastean, interesdunak erreferentziako profesionalak betetako formularioak sinatu beharko ditu.

Espedientea izapidetzea, ebaztea, prezio publikoak likidatzea eta biltzea geroago egingo da hauetan ezarritako prozeduren arabera: Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 22ko 36/2014 Foru Dekretuan -mendekotasun egoera, desgaitasunaren kalifikazioa, garapen nahasmenduak edo hura jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta baldintza horietan Arabako gizarte zerbitzuen zerbitzu eta prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen-, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak emandako zerbitzuen prezio publikoak arautzen dituen abuztuaren 2ko Foru Gobernu Kontseiluaren 40/2019 Foru Dekretuan edo horiek osatzen edo ordeztzen dituzten araudian.

Lehenengo xedapen gehigarria

Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru dekretu honetan jasotzen dena garatzeko, betearazteko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

AZKEN XEDAPENAK

Azken xedapenetako lehena. Prezio publikoa sortzea.

Otordua etxera eramateko bi zerbitzuak (bazkaria eta afaria) hornitzeko, pertsonako eta hornidurako 7 euroko prezio publikoa ezartzen da.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau onesten den egunean bertan jarriko da indarrean, ALHAOn noiz argitaratu gorabehera, eta atzeraeraginezko ondorioak izango ditu 2020ko martxoaren 16ra arte.

Azken xedapenetako hirugarrena. Indarraldia.

Foru dekretu honetan jasotako neurriek indarra izateko, alarma, salbuespen edo setio egoerak eta/edo osasun alertako egoerak iraun behar du, eta Euskadiko Babes Zibileko Plana aktibatu behar da.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 27a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Gizarte Politiken Saileko Foru diputatua

EMILIO SOLA BALLOJERA

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria

ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ